

Lagun horiek:

Aurten ere Bai Euskarari ziurtagiriarekin dituzuen konpromisoak berriro dituzue, eta mankomunitateak bide horretan lagundu nahi dizue.

Urtero bezala, mankomunitateak laguntza ekonomikoa eskaintzen dizue ziurtagiria duzuenoi. Mankomunitate honek ziurtagiria duzuen eragile bakoitzari **45,50 euro** ematea erabaki du. Laguntza lortzeko honako urrats hauek egin behar dituzue:

1. **Eskaera orria bete:** eskutitz honekin batera bidaltzen dizuegun inprimakiaren atal guziak bete behar dituzue; sinatzea beharrezkoa da.
2. Bai Euskarari Elkarteari ordaindu diozuen **fakturaren fotokopia (2022koa), eta ordainketaren agiria.**
3. **IFZ (NIF) txartelaren kopia:** eskaera orriarekin batera bidali behar da.
4. Dokumentu horiek **mankomunitatera eraman, edo bidali:**
 - Posta bidez, helbide honetara:
Bortziriako Euskara Mankomunitatea
Herriko Plaza 7
31790 Arantza
 - EDO e-mailez, helbide honetara: euskara@bortziriak.eus

Deialdi honi buruzko xehetasun gehiago jakin nahi izanez gero, gure web orrian begiratzen ahal duzue:

www.bortziriak.eus

Eskaerak egiteko **epea 2022ko urriaren 28ra** bitartekoa izanen da. Ez da onartuko epe horretatik kanpo egindako eskaera bakar bat ere.

Izan ongi.

Mankomunitateko lehendakaria